


Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko azaroaren 11 / IV. urtea / 152. zenbakia



OSKAR MONTERO

Jose Miguel, Miguelen itzala

Miguel eta Jose Miguelek, Indurain eta Etxabarririk, euskal kirolaren historian tokia egina dute aspalditxo. Atarrabiarrak atzean izan du beti abartzuzarra, eta gutxitan ezagutu da halako bikote sendorik lehia inon baino handiagoa den mundu honetan. Haste-hastetik elkaturik, amaiera ere elkarrekin egingo omen dute, edo ia. «Miguel baino lehentxeago erretiratuko naiz, azken esprinta ikusteko», azaldu digu Banestoko zuzendariak.

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



San Martin Eguna gogoan

San Martin egunak eguraldi ona ekarri ohi digu, baina ez beti berri onak. Egun honetan batera burura dator kit gogoeta benetan larria. Hamabost urte joan dira iadanik gertatu zenetik eta bizi bizirik dirau oroimenak.

Hainbat aldiz errepikaturiko eskena suertatu zen hartan ere. Berdez jantziriko armadun ofizialak errepide bazterretan zuden, aurretik bertan egondako kontrola altxatu ondoren. Berrietariko bat tiroka hasi zen ondotik pasatzen ari zen kotxe baten kontra. Barnean zihon gazte bat hilik geratu zen, hura zergaitik gertatzen zitzaion galdetzeko betarik izan gabe.

Miguel Arregiren heriotza bere gain hartu zuen ondoren izandako epaiketaren gixajoaren itxura omen zeukan armadun haietariko batek eta inor hiltzeko eskubiderik eta arrazoirik ez bazuen ere, hilabete bateko kartzela-zigorra jaso zuen epailearengandik goardia zibilak. Gure herriko errugabe baten bizitzak ez du gehiago balio estatuko boteredunentzat, hori eta inorren bizitza itzultzen ez duen diru apur bat.

Ustelkeri kontuak, zuzentasunaren kontrakoak ez dira atzokoak. Hala ere, hainbat aldiz itxurarekin engainatzen gaituen gobernu-sistemak ezin izanen ditu egindako hau bezalako bigabekeriak sekulan garbitu. Hildako guztiak ez dira berdinak. Etziren berdinak Nafarroako bide bazterretan akabatutakoak eta Jainkoaren izenean hildakoak.

Sistema aldatu omen eta hildakoez desberdin izaten segitu zuten eta beldur naiz ez ote garen horretaz jabetzen bakarrik gertutik bizitzen ditugunean.

Izan, izaten da izena duen orok, dio sinismen zaharrak. Aspaldi honetako gure gizarte honetan badirudi izan, izaten direla bakarrik ikusi eta gertutik bizitzea tokatu zaizkigunak.

ANTZERKIA



'Una de casas' izeneko obra taularatuko du gaur ostirala, Tuantantes del Norte antzerki taldeak. Iruñeko Gaztetxearen seigarren hilabete betetzen dela eta, Euskal Jai pilotaleku zaharrean izanen da, gaueko 10.00etan.

Teatro Paraiso taldeak 'Zapatos rojos' izenburuko lana aurkeztuko du gaur ostirala Tafallako Kultur Etxean. Kultur Patronatoak antolatutako, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 300 pezetan salduko dituzte.

Xahutondo taldeak 'Canciones del viejo Sur' izeneko obra taularatuko du bihar, larunbata, azaroak 12, Barasoain herrian. 'Udazkeneko Bira' zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Valdorba Elkartearen.

ZINEMA



'El amigo americano' Win Wenders zinemagileraren pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, azaroak 15, Iruñeko Olite zinemaren. Arratsaldeko 8.00etan hasiko da eta sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

'Ensayo de un crimen. La vida criminal de Archibaldo de la Cruz' izenburuko pelikula botako dute heldu den ostegunean, Iruñeko Olite zinemaren. Nafar Ateneoak antolatu duen Zinema Mexikarrari buruzko zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

BESTELAKOAK



Itxaro Bordaren azken liburuaren aurkezpena izanen da gaur Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartearen, arratsaldeko 8.00etatik aurrera. 'Bakean utzi arte' izenburuko liburuaren berri emanen du idazleak Ansoleaga kaleko elkarteko aretoan.

Felix Iñurrategi mendizalearen eskutik diapositiba emanaldia izanen da gaur ostirala, Urri-tzan. Euskara Zerbitzuak antolatuta, gaueko 11.15etan hasiko da, herriko elkartearen.

'Folk ametsetan' izeneko musika zikloaren emanaldiak izango dira asteburu honetan Kastejon, San Adrian eta Baztanen. Alamar taldeak saio eskainiko du gaur ostirala San Adrianen, gaueko 9.30etan Kultur Etxean. Talde bera ariko da bihar, azaroak 12, Kastejon, gaueko 10.30etan Kultur Etxean eta igandean Baztan aldera hurbilduko da bere emanaldia eskaintzera, arratsaldeko 8.30etatik aurrera Salon Kasinoan.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Ikusi beharrekoak

Iruñean, herrixka guztietan bezala, jendeak badu halako behar bat noizean behin auzokoaren galtzerdien urrina usaintzekoa, ondokoa nola zahartzen den baiezatzeko; ez da nahikoa egunero elkarrekin topotea, urtean bizpahiru aldiz komeni da ospakizun solemneren

Eliza Katolikoa etorri den gauza pixka bat konpontzera; katedral bat berriz irekitzea ikuskizuna emateko aukera ona da. Txalotzekoa da, benetan, hierarkia ekle-siastikoak espektakuluak antolatzeke duen trebezia. Ateo eta agnostiko ergelok oraindik ez gara konturatu zenbat ikasi behar du-

bat kalkuladora eta guzti joan omen zen—, eta Jaungoikoaren artaldea hondoan: umegaltzearen aurkakoak, mesokrata ilustreak, halabeharrez hortik pasatzen zen Murciako bat; baina gorriak eta ateoak ere bai. Denok gara eta, Jaungoikoaren ardiak. Eta denok behar dugu, nonbait, herrixkako



bat antolatzea xede horrekin. Horrelakoetan bere gisako prestutasun eta jatoriasun 'labelak' banatzen dira, edozeinek eskura ditzakeenak, hemen ez da usatzen eta Arzallusen 'pedigree-ak' banatzeko era bihurri eta gaizto hori. Jendea inoiz baino zitudanago sentitzen da eta era eroso honetan eraberritu dezake aldamenekoa-rekiko herra izkutua.

Osasuna bigarren mailan dagoenez eta Riau-riaua debekatu dutenez, ordea, gero eta bakana-goak izaten dira auzokoaren galtzarboko izerdi-usainaz gozatzeko aukera eritual hauek. Beharrik

gun; hegan hasi ezker, gu oiloak eta haiek bele.

Nahiko nuke, zinez nahi ere, Elizaren gorabeherak hitzetatik haruntzago —bihotzez, alegia— errespetatzea. Ezin dut, haatik. Ezin dut eta ahaztu sotana baino beltzagoa dela barrenetan gordetzen duen kedarra. Igandeko antzerkia non bizi garen gogorazterera —berriro gogorazterera, inoiz ahaztutzeko tenorean izan bagina bezala— etorri da. Gauza ongi antolatuta zegoen, denek azpimarratu dute zeinen ongi ordentatua zegoen asuntua; Txokarro-tarrak toki ohorezkoetan —bateon

historiaren une printzipaletan nor garen erakutsi.

Asuntua bukaturik, ardiak, Aita Sainduaren bedeinkapena hartuta (a-zer nolako pelotazo izpirituzkoa, indulgentziak eta gainerako arima-kontabilitate harrigarri horiek daramatenentzat), mirakuluaren bila joan ziren; hau da, 'Les Luthiers' ikusteko txartela lortzen saiatu ziren. Idatzita dago, ordea: asko dira deituak, gutxi aukeratuak. Txokarro-tarrak, bere alde-tik, pelotazo izpirituzkoaz gain pintxo batzuk jaten gelditu ziren. Txartelak aurretik zeuzkaten erreserbatuak, antza.

ASTEKO PERTSONAIAK



Jorge Nagore
Pilotaria

La u'terdiko Txapelketa hasi berria dago baina ezusteak izan dira lehen partidutan. Horieta bat Jorge Nagore Irurtzungo pilotari gazteak eman zuen, Errastiren kontra zuen partiduan irabazi baitzuen joan den igandean. Eskoriatzan izan zen partidua eta naparrak 22-16 aldeko emaitza lortu zuen, partidu serioa egin eta gero. «Errastiren kontrako norgehiagoka gogorra izan zen eta kostata atera nuen, baina azkenean irabaztea lortu nuen. Jakina, hori egin eta gero oso pozik nago», azaldu zuen alaisu irurtzundarrak. Heldu den igandean, ordea, beste konpromezu latza izanen du, Errandonearen kontra jokatu behar baitu. «Aurrekoan bezala zaila izanen da garaipena lortzea, baina ez ezinezkoa».



Juan Antonio Ibiriku
Enpresaria

Nafarroako Hegazkin Konpainia SA izeneko enpresako presidentea da Juan Antonio Ibiriku, Nafarroako Enpresariaren Konfederazioko Presidente ohia. Hegazkin konpainia hau sortzeko asmoz lanean izan dira azken hilabeteetan herrialdeko 30 enpresari inguru eta azkenean lortu dute, Gobernuaren baimenarekin. Exekutiboak, orain, bertan partehartuko duen ala ez erabaki behar du. «Gobernuaren partehartzea interesatzen zaigu», azaldu zuen Ibirikuk, eta hortan ari dira lanean. Konpainia honek Madril,artzelona, Galizia eta Hego Euskal Herriko hiribururekin batera bidaiak egingo ditu eta horretarako hitzarmena sinatu du Air Truck enpresarekin, hegazkinen alokairua eta bestelakoak zehaztuz.

AHAZTU GABE!

KULTUR ASTEA



Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkarteak antolatuta, 'Auzo osasuntsu baten aldeko astea' izeneko aste kulturala hasiko da heldu den astelehenean. 'Emakumea eta osasuna' izenburuko mahaingurua izanen da astelehenean, arratsaldeko 7.30etan, Hizkuntz Eskolan. Bertan, Andraize, Andrea eta familiako mediku bat izango dira. Asteartean, 'Drogomenpekotasuna eta HIESa' gaiari buruz ariko dira gaixotasun horren inguruan mugitzen diren zenbait talde. Asteazkenean, 'Alde Zaharra osungarria ote?' galderaren inguruan hitz egingen dute udala, Osasun Instituta eta Osasun Zentroko kideek. Iñaki Moreno medikua eta Osasun Zentroko kide bat 'Osasun zahar-tzaroan' gaiaz mintzatuko dira ostiralean, 5.00etan San Franzisko Jubilatuen Egoitzan. Larunbatean ekitaldi ugari izango dira, animazio taldeak kalean, tren berezi bat, eta Auzo Jaia goizez; Arratsaldez, dantzaldia Mutiko Alaiak eta Fraile Gaitariakin.

jenero xumekoak

4

Azeria zeruan ura edaten ari da. Azeri horri isatsa ukitzen dion arra eme bihurtzen da, eta emea ar. Ortzadarra ukitu zenuen horrek, emea edo arra, esan iezaguzu nork sentitzen duen plazer gehiago larritan, emakumezkoek ala gizonezkoek?

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Bakaiku

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Intsumisioaren aldeko jaialdiak arrakasta handia lortu zuen

AMAIA AMILIBIA / BAKAIKU

Antzerki eta bideo emanaldi antimilitaristak eta La Polla Records taldearen kontzertuak mila lagun baino gehiago bildu zituen joan den larunbatean Bakaikuko pilotalekuan. Rock jaialdia Sakanako Antimilitarista Taldeak (SAT) antolatu zuen gose greban diren 47 intsumituen alde eta sakabanatzearen aurka. Javier Aiestaran Bakaikuko alkateak, 20 hilabete kartzelan egon ondoren kalera aste honetan bertan atera dena, jendaurrean gose greban dauden intsumituen komunikatua irakurri zuen. Asteburu honetan Sakanan itxialdiak eta baraualdiak izanen dira, intsumisioen egoera gogorra salatzeko.

La Polla Records, Flitters eta Desterrados rock taldeek bete egin zuten Bakaikuko pilotalekua. Dena antolatzen lan handia egin zuten SATeko gazteek, eta arrakastak argi utzi zuen merezi zuela. Desterrados taldea izan zen bere musikarekin jendea dantzan jarri zuen lehena. Flitters taldeak azken lana aurkeztu zuen bertan, gomabitsez egindako txotxongilo erraldoiak eta guzti, eta Lizarreko taldeak zalaparta handiz eta erritmo bizi eta indartsuekin piztu zituen jendearen gogoak. La Polla Records taldeak Sakanako intsumi-



La Polla Recordsek animoak berotu zituen Bakaikun.

tuekin zuen hitzezko agindua bete eta berriro ere sasoiari dardela erakutsi zuten, eta guzti eman zuten, dakiten bezala.

Musika indartsua, beraz, baina hori ez zen dena izan. Kontzertua hasi baino lehen antzerki antimilitarista izan zen. Gidoia, orain gose greban dagoen Martin Zelaia intsumitu altsasuarrena zen. Hiru arotan banatzen zen gizadiaren historiaren indarke-

ria: Historiaurrean, non indarrez menderatzen zuen basati batek gizatalde bat; Erdi Aroan bestea, non nekazari talde batek erregearen boterea zalantzan jartzen zuen, eta azkenik, gaur egungo gizartearen, armadaren izaerak dakarren kontraesana azaltzen zuena.

Ikus-entzunezko emanaldi batzuk ere tartekatu ziren jaialdian zehar. Koxkorron taldeak egin-

dako bideo-lanak pilotalekuko paretan proiektatu ziren eta armadaren indakeria eta sarraskiak azaleratu zituzten, irudi latzak musika eta soinuz egokiturik zeuden. Jaialdian Sakanako intsumituak ere omendu zituzten. Estatuko karteletan sakabanatuta, Iruñeko kartzelan daudenak eta egondakoak, eta baita atxilotzeko agindua dutenak aipatu ziren bertan.

Tafalla

Permakultura teknika berriari buruz ikastaroa antolatu du Bio Lurrek

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Permakultura izeneko teknika buruzko ikastaroa egiten ari da egunotan Tafallako El Vivero Azienda-Eskolan, Bio Lur Nekazaritza Ekologikorako Elkarrekin antolatuta. Atzo hasi ziren jardunaldiak igandera arte iraungo dute, eta bertan irakatsiko da nola lor daitekeen, paisaia aztertuz, inguruarekin estuki lotutako nekazaritza ekologikoa.

Permakultura, hain zuzen, nekazaritza ekologiko mota bat da, bereziki egokia azienda txiki edo baserriendako. Izan ere, teknika honen bidez, ingurugiroari erreparatzen zaio ezer egin baino lehen, eta aztearen inguruan dauden baliabide guztiak aprobetxatzen ditu ahalik eta

hobekien. Horretarako egoera aztertu egiten da lehendabizi, hau da, ura, inguruko zuhaitzak, lurra bera, eta horren arabera bertan zer ekoiztu behar den erabakitzen da. Horretarako oso energia gutxi erabiltzen da, ez delako lur mugimendurik egiten, gutxi erabiltzen direlako makinak eta errekurso naturalak ongi aprobetxatzen direlako.

Atzo hasi zen ikastaroan inguru jakin batean egin daitekeen diseinu teknikak jarriko dira praktikan, eta horren oinarriak azalduko dira, bai baratza egokitzeko bai eguneroko bizitzan aprobetxatzeko. Ondoren, txangoa egingo da. Orduan azalduko da nola jakin daitekeen zona bat gaixorik edo baldintza onak dituen, zer egin daitekeen bertan,

zer esplotazio motak para daitezkeen eta abar.

Ikastaroa Richard Warde nekazari ingelesak emango du, lau urte luze baitaramatza arlo honetan lanean eta ikastaroak ematen. Monsant Kataluniako elkarteko partaidea da, eta elkarrekin ahalik gehien teknika hori zabaltzen. Bertan bilatzen dira arkitektura, ekologia, basozaintza eta beste hainbat arlotako adituak.

Euskal Herrian, Gipuzkoan eta Bizkaian batez ere, hasiak dira dagoeneko teknika hau ezartzen zenbait baserrian, baina Nafarroan hau izanen da lehendabiziko ikastaroa. Bio Lur elkarteko bazkideendako ezezik, interesatu ororendako ere irekia da ikastaroa.

Lizarra

VI. Azaro Ekologikoa martxan

LIZARRA

Lizarrako talde ekologistak antolatutako VI. Azaro Ekologikoa hasi zen atzo bertako Fray Diego kultur etxean, Mikel Nazabal etxarriarrak eginiko 'Urbasa-Andia Natura bizirik' bideoaren proiektzioa eta ondoko debatearekin. Gaur, arratsaldeko 8.00etan 'Ekologia eta Kontsumoa' gaiari ariko da Jordi Bigas 'Integral' aldizkari zuzendaria. Igandean, hilak 13, Bardeetara txangoa antolatu dute antolatzaileek, bertako ikerlarien azalpenez lagunduta. Heldu den asteazkenean, hilak 16, Jean Jacques Annauden 'En busca del fuego' izeneko pelikula ikusi ahal izanen da, eta ostegunean, hilak 17, 'Itsasoaren arazo ekologikoak' izanen dute mintzagai Esteban Olaizolak eta Ricardo Aguilarek.



ezin liteke» pentsatu nuen ene golkorako, eta horren gibeletik «Non dira ezagun eta lagun guztiak?». Komunikatua atera nintzen, eta berriro ere inor ez nuela ezagutzen ikusi nuen. Ez nituen ezagutzen, ala ez nituen gogoratzen? Alzheimerrek jota al nengoen?

Azkenik, amnesiatik ateratzeko atea ireki zidan aurpegi ezagun bat ikusi nuen, zerbitzariarena hain zuzen. «Zer gertatzen zait, bada? Alzheimer gaitzak jota al nago?» galdetu nion urduritasunak erraiak nahasten zizkidala. «Ez bada. Zu Lakasta gaitzak jota zaude», erantzun zidan berak. «Eta larria al da hori?» i-taundu nion segituan, haren erantzunak batere lasaitu ez ninduela eta. Berak, azkenik, erantzun argigarria eman zidan. «Doktoreek, orainoz, ez dakusate afera oso argi, Lakasta. Argi dagoen gauza bakarra zera da, gaitza horrek jotak zaudetenek ez zaretela ostegunetan Alde Zaharra Unibertsitate Publikoko ikasle betetzen dela gogoratzeke gai».

Jose Miguel

San Miguelen itzalpean

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Bera da herri honetako txirrindularitza mail gorenera eramana duena. Hemengoek osatutako taldearekin bost Tour loritzeaz gain, ehundaka milioi pezeta mugitzen duen enpresa sortu du, eta ospea lortu eroena dirudien kirol honen historian. Jose Miguel Etxabarriri aitortu egingo zaio luze gabe 1980an hasi zen historia honen buru eta bihotza izatea, eta taldeko lorpen eta porrotetan bere erantzukizuna aitortzen du duda izpirik gabe. Bera izan zen orduko errekorra hobetzeko ahaleginean ilusio handiena jarri zuena, eta Tony Rominger suitzarrak joan den asteburuan kendu izanak ilusio

Hurrengo denboraldiari azken ukituak ematen ari dela, zaila da oso kafe baten inguruan gizon honekin mintzatzeko parada aurkitzea. Behin lortuta, gozoa, jatorra du oso hizketa, baina, hitz txarrik ez badu ere, sutsu aritzen da Miguelen eta Banestoren inguruan, bere bizitzaren inguruan. Hori dela eta, Atarrabiakoak elastikoa azken aldiz erantzten duenean, kanpotik ikusi eta gozatu nahi duela dio.

«Miguel baino lehenago erretiratuko naiz»



Jose Miguel Etxabarriri.

OSKAR MONTERO

hori ez duela zapuztu dio.

EGUNKARIA.— Denboraldi a amaitu berri da, eta amaitu da ustekabe galantarekin, Romingerren errekorrekin alegia. Horrek ez dizue zapore mikatz samarra utzi?

JOSE MIGUEL ETXABARRI.— Niri zapore handia utzi dit. Helburuak bete egin ditugu, eta duela zenbait urte neure buruan zegoen ametsa —orduko errekorren sailkapenean izatea— lortu dugu Indurainekin, hemen inoiz izan den txirrindulari onenarekin. Badugu errekorra, beraz. Hor gaude, zerrendan. Tourra —laugarren aldiz jarraian—, Pedro Delgadoren agurra, Banesto taldearen emaitza onak, denak lagundu du zaporea, berriro ere, ona izan dadin, Galdetzen badiate ea Romingerrenak baliorik kentzen dion Indurainen saioari... ba, ez dauka zerikusirik! Errekorra oso ongi etorri zaio Romingerri, baina ez du lausotzen, inola ere ez, Indurainek egin zuena.

EGUNKARIA.— Zuendako ustekabea izan da?

ETXABARRI.— Ni ez naiz harritu. Miguelek errekorra hobetu zuenean esan nuen —eskerrak orduan esan nuen!— hori ez zela bere marka. Uste dut Romingerrek ahal zuen guztia egin duela Bordelen, eta Miguelek oraindik gehiago egin dezake. Zenbat den hori? Ez dakit. Baina puntu goren hori lortzeko Miguelek agur esan behar baldin badio Tourrari, ba, nahiago dut Tourra, eta errekorra etorriko da. Ez naiz horrekin itsutzen, egiten badugu marka ondu egingo duen beste bat etorriko delako. Aurten esperientzia handia hartu dugu eta gaiditu dugu. Eta horretaz gain errepidean genituen helburuak bete egin ditugu. Romingerrek huts egin du errepidean, eta apur bat salbatu da errekorrekin. Oso ongi, eta onartu egin behar da bere meritua. Hilabetetan landu egin du, eta mail handia dauka.

EGUNKARIA.— Denboraldi berezi samarra izan da, nolatan

ere, oso gauza ezberdinak bizi izan dituzelako —Indurainen flakiak Giroan, lorpen handiak Tourrean eta errekorrekin—. Zer balantzea egiten duzu?

ETXABARRI.— Giroa irabazi ez zuenean, Tourra galduko genuela zioten batzuek. Miguelek ez zuen Giroa irabazi, bere betiko helburua Tourra izan eta delako. Giroan ez zegoen sasoi betean, min izan zuelako denboraldiaren zehar, behar bezalako prestakuntza ez zuelako izan... Ezin da esan galdu edo irabazi duela, azalpenak bilatu behar dira horretarako. Eta azalpenak hor daude, beraz normala da. Ordea, ni asko kezkatzen nau afizioaren jarrerak, uste dudalako ez dakiela emaitzak onartzen. Miguelek gauza handi bat erakutsi digu aurtengo Giroan. Erakutsi zuen pertsona bat zela, ez zela gajndiezina, eta bazekiela borrokatzen. Jendea etsenplua eman nahi baldin badiogu, gajndiezina den pertsona batek ez digu balio,

hori naturaren dohaina ez besterik izan daitekeelako. Ez, borrokatzen eta galtzen duten pertsonen aurrean gaude, kiroltasunez galtzen dakiten pertsonen aurrean, hain juxtu. Jendeak ez omen du ulertu Miguelek edozein momentutan huts egin dezakeen pertsona dela, eta hori desilusio handia izan da niretzat. Hori ez bada ulertzen gizarte horrekin nahasi naiz, oker nago.

EGUNKARIA.— Gaizki ohituta gaudela uste duzu?

ETXABARRI.— Oso gaizki, eta horrek kezkatzen nau. Nik ikusi nuen nola gelditu zen gasolinarik gabe Santa Cristinan, *maglia* arrosarantz zuzen-zuzen zihoala. Nik banekien hori, eta banekien zergatik zen. Baina jendeak ez zuen hori onartu, eta esan zuen azkenetan zegoela, ez zuela prestakuntza nahikorik. Horrek balio izan digu jakiteko goian egotea oso polita bai, baina iragankorra dela. Geroztik ez zaizkit losentxak balio.

Losentxak, hain segur, sobera

izan ditu 1980an Reynoldsekin hasi zenetik, eta baita oztopo franko ere, ausardia nahi adina erakutsi baitzuen hasiera-hasieratik. Hiru urte geroago Tourrera joateko asmoa azaldu zuenean eroturik ote zeuden entzun behar izan zien askori. Hamaika urte geroago munduko talderik onenetakoa dauka, eta prestigioa aski onartua.

EGUNKARIA.— 1983an, Tourrera heldu zinetenean Delgado eta Arroyorekin, gizarajotzat hartzen zintuzten Frantzian. Gaurtik ikusita, ordea, bai Reynoldsekin bai Banestorekin egin duzuen bi-deak oso ongi planifikatuta dirudi. Orduan bazenuen gaur egungoa buruan?

ETXABARRI.— Dena denboraren poderioz heldu da. 1983an Tourrera joan ginenean jendeak barre egiten zigun aurpegira, eta esaten zigun: 'Hori da Jaungoikoari hika aritzea!'. Eta gu begirune osoz joaten ginen, baina uste genuen helmuga berriak bilatu behar zirela. Ez zen gure txirrindularitzaren garairik onena, baina orduan heldu ziren Arroyo, Gorospe, Delgado, belaunaldi osoa... Eta belaunaldi horrekin lortu genuen hau guztia. Behetik hasi ginen, eta uste genuena baino gorago heldu gara.

EGUNKARIA.— Biek, Arroyok eta Delgadok, zure taldea utzi zuten gero. Inoiz esan duzu hori izan dela zure akatsik nagusia.

ETXABARRI.— Talde batek, liderrik gabe, ez du merezi. Nik ez nuke arazorik izango gazteekin berriro hasteko, baina gazteekin ezin duzu Vuelta bat irabazi. Guk hori egin genuen 1980an sortu genuen Reynolds harekin, eta pazientzia izan genuen. Gero heldu ziren txirrindulari handiak, eta guk nahi genituen antzeko soldatak denentzat, halako oreka. Hori ezinezkoa izan zen, bai Delgado bai Arroyori eskaintza itzelak heldu zitzaizkielako. Eta guk diferentzia horiek ez sortzeagatik, alde egiten utzi genituen. Baina txirrindularitza ez dago komunismorik, eta ondoren ohartu ginen gure okerraz. Gero berreskuratu genituen, eta erakutsi genuen lider batekin beste guztien ahaleginek merezi dutela.

EGUNKARIA.— Gaur egungo talde handiek, hain zuzen, hori dute ezaugarria: lider batendako lan egiten dutela. Hori, baina, traba izan da beste txirrindulariendako, klasikak edo astebeteko lasterketak irabazteko aukera ez dutelako izan, denak liderra laguntzeko baitaude.

ETXABARRI.— Esan beharko zenidake klasikak irabazteko gai diren txirrindularien izenak...

EGUNKARIA.— Cabestany, Fede Etxabe, Mauri, Marino Alonso, Aitor Garmendia...

ETXABARRI.— Txirrindulari horiek izan dituzte aukerak. Hogeitau urte lehenago Merckx-ek dena irabazten zuen, baina gaur egun modaz pasatuta dago txirrindularitza hori. Gaur egun badira udaberriko lasterketarako txi-

Jose Miguel

San Miguelen itzalpean

rrindulariak, badira etapetako itzulietakoak, badira udazkene-ko itzulietakoak, Vueltarakoak eta Tourrerakoak. Jende horri garai horietan ez dago gailentzen zaionik, eta bakoitzak ikasi behar du berea aukeratzeko eta prestatzeko. Guk daukagu lider bat lasterketa zailena eta onena irabazteko, eta ezin ditugu indarrak beste gauzetan xahutu. Beraz, gure taldean sartzen denak badaki oso ongi zertara datorren, ez diogu inori ziria sartzen.

EGUNKARIA.— Hau, hala ere, duela hamar urteko kontua da, lehen klasikek izugarritzako fama zutelako. Roger de Vlaeminck, Freddy Maertens, Sean Kelly eta antzeko txirrindulariek, soilik klasikak irabazita ere, Tourraren irabazle batzuek baina toki handiagoa dute txirrindularitzaren historian.

ETXABARRI.— Klasikek oraindik badute interesa, jakina, baina te-
lebistak dena aldatu du. Berak markatzen dizkizu helburuak. Paris-Roubaix lasterketak izugarritzako prestigioa dauka, baina ni ez noa. Zertara joanen naiz? Indurain izanik, Tourra ez den beste guztia bigarren mailan dago. Baina bere atzean dauden txirrindulariak ez dira galduko, lasai. Gazte batek klasea, ilusioa baldin badauka, izango du bere aukera, eta ez da izango geldiaraziko duenik, horretan ez da dudarik. Hori bai, Tourra heltzen denean, dena da Miguelentzat.

Urtero bezala, aurtun ere Indurain eta Banestori aurre egiteko 'gai' ziren txirrindulariak hai-zatu ditu prentsak, Berzin errusiarra eta Rominger suitzarra bereziki. Indurain sasoiko ez zegoela irabazi diotela azpimarratzen du Jose Miguelek, eta oraindik egoera berean ez direla aurrean jarri, edo galdu egin dutela. Bere ustez, Berzinek heldu den denboraldian justifikatu egin beharko du irabazitako Giroa, eta Romingerren aukerak zalantzan jartzen ditu. «34 urterekin oraindik indar gehiago izango du? Litekeena da naturaren fenomeno izatea...».

EGUNKARIA.— Miguelen inguruan izen eta abizenak dituen talde bat osatu duzu, eta harrigarria da urte hauetan guztietan hor izan den giro ona, arazorik falta. Zer izan zatekeen Miguel Indurain José Miguel Etxabari gabe?

ETXABARRI.— Miguel ona atera zatekeen, berdin-berdin, baina akaso beste modu batez egin zatekeen bidea. Nik ikusten ditut beste zuzendarien hutsak, askok premia izugarria dute eta itsasora heltzeko, eta ez dakite ibai guztien urek itsasoan amaitzen dutela beren bidea. Baina ezin da beti bide motzena bilatu, eta Baneston ez dugu inoiz izan premia hori, sagar onena zuzaitzean dagoena, bere une egokienean hartzen dena delako. Berzinekin akaso hori gertatuko da... Miguelek, ordea, pazientzia izan du.

EGUNKARIA.— Harrigarria diot txirrindulari handiek —Coppi,

Anquetil, Merckx, Hinault— ia beti arazoak izan dituztelako ingurukoekin, eta taldeak aldatu dituzte frankotan.

ETXABARRI.— Bai, kontseilariengatik, harrokeriarengatik... Nik oso zaila izan nuen Delgado eta Indurainen arteko aldatzea. Bi txirrindulari apartak ziren, eta tradizioak zioen elkarri joka ariko zirela, bi oiloak oilotegi berberan zirelako. Eta izan ziren zeharkako begiradak, galdera isilak, baina traumarik gabe egin genuen aldatzea, eta hori izan


«Miguel ona izan zatekeen, berdin-berdin, ni gabe». OSKAR MONTERO



zen biak azkarrak direlako, eta elkarri errespetua ziotelako. Ikusten zen lider naturala Indurain zela, eta berak jakin izan zuen itxaroten. Delgado, bere aldetik, garaiz konturatu zen.

EGUNKARIA.— Badakizu Induraini egingo zaion kritikarik handiena soilik Tourra prestatzeagatik, zuhurra izateagatik izango dela. Kezkatzen zaitu historiaren epaiak?

ETXABARRI.— Miguel etsenplu asko ematen ari da, eta etsenplu onak. Berak ez ditu aurkariak txikitzen, begirunea die, eta biharkoan pentsatzen du, ez du dena xahutzen egun berean. Miguelek klasikak irabaztea nahi badugu, prestatzen dugu eta bat edo bi irabaziko dugu, nik horretan hitz ematen dut. Baina gero ez diezadatela eska Tourra. Berzinek zer egin du Giroaren ondorengatik? Zer egin du Romingerrek



Tourraren ondorengatik? Zer Furlanek udaberriko lasterketak eta gero? Gu ez gara haiek baino hobeak. Gu pertsonak gara, eta besteak baino indar eta klase apur bat gehiago baldin badugu, irabaz dezagun Tourra, eta utz dezagun bestea.

EGUNKARIA.— Indurain joaten denean tunel luzea datorrela aipatu duzu behin baino gehiagotan. Luzeegia izango da?

ETXABARRI.— Nik ilusio handia daukat etortzen diren gazteekin, baina Miguel bakarra da. Eta ondoren geldiunea etorriko da, ezinbestez. Zergatik dago Banesto txirrindularitzan? Miguel dagoelako. Bera dagoen tokian bada giroa, bada zerbaite. Romingerren errekorrekin izan den giro eta interesak ez du zer

ikusirik Indurainen saioarekin izan zenarekin. Miguelek herri oso batek gozatu egin du. Berak ez du bakarrik publizitatea ematen, horretaz gain zorientasuna ematen du. Eta gaur egun hori oso zaila da.


EGUNKARIA.— Eta ondoren datorren tunel horretan jarraituko du Jose Miguelek?

ETXABARRI.— Patua ezin du inork zehaztu, eta gauza bat da neure desioa, eta bestea gertatuko dena. Hala ere, uste dut Miguel baino lehenago erretiratuko naizela.

EGUNKARIA.— Zergatik? Ez zenuke gustuko dena berarekin batera uztea?


ETXABARRI.— Ez. Kanpotik ikusi eta gozatu nahiko nuke azken esprint hori.

Jendeak ez du ulertu Miguelek edozein momentutan huts egin dezakeen pertsona dela, eta hori desilusio handia izan da nerretzat».





XAKEAN



Nafarroako Taldekako Txapelketako Hirugarren Ihardunaldiko Partida. 1994ko urriaren 29an jokatu.

Jose Manuel Redin, 2.200 ELOkoa (Iruñeko Casco Antiguo) — Santiago Karasusan, 2.290 ELOkoa (Iruñeko Anaitasuna).

1) e4, e5; 2) Zf3, Zc6; 3) Zc3, Zf6; 4) g3.

Alfilari horrelako bidea ematea ez da ohizkoa, 'e4ko' peoiak traba eginen diolako. Diagonala geroago irekitzeko asmoa izanen dute.

4)..., Ac5; 5) Ag2, d6; 6) 0-0, Ag4; 7) h3, Ah5; 8) g4, Ag6; 9) d3, h6; 10) Za4, Ab6; 11) Zb6, a-b6; 12) Zh4, Ah7; 13) Zf5, Af5.

Aldaketa beharrezkoa. Txurien peoiak aurrera joko du, eta presioa egin ere. Baina errege txuriak zuloak baditu.


14) e-f5, Zh7; 15) f4, Dh4; 16) c3, O-0; 17) Ad2, f4; 18) Af4, fG-e8; 19) Eh2, Ge7; 20) Ag3, Dg5; 21) h4, Df6; 22) Ac6.

Erabaki eztabaidagarria. Alfilen bikotea galduko du, baina erregeak ustegabeen arriskua gutxitu ere bai, zaldien joko korapilatsua ekiditean.

22)..., c6; 23) Df3, d5; 24) Df2, Ga4; 25) Eh3, c5; 26) fG-e1, Ge1; 27) De1, h5.

IKUS KOADROA. Errege txuriak ahulagoa dirudi, eta erasoen beldur. Baina jokoa ongi eraman behar da une guztietan, ilunaldirik gabe, beltzek egin ez dutena. Irakurleak erraz asmatuko du zergatik utzi zuten partida.

Berri txarra



Aitziber Biurun

(BARAÑAIN)

I lunabarra zen, eta eguzkia sartua zegoen jadanik urrutiko mendien tartean. Zeruan zeuden hodei ilunak ikusita, gau itxia izango zela antzematen zen. Ilargi bete ageri zen, hodeien artetik, Xalem hiri sorgindua argituz. Hirian ez zen inor ageri, kale gehienetan zehar bakartasuna eta lasaitasuna zen nagusi, zakarretan zehar zeuden katuengatik ez baltiz. Gaueko hamaika terdiak jo zuten elizako kanpai herdoilduak. Hilerrri ondoko etxeak lagaturik zeuden, ilargi bete egunetan izugarritzko munstruak agertzen zirela pentsatzen bait zuen jendeak.

Hilerrria lasai zebilena. Hango pinuek itzal arraroak marrazten zituzten lapida eta bide tartetik. Belebhega zabiatur ziren hotshandia ateraz.

Hilerritik laupabost kilometrotara. Tren-gel-

tokia zegoen. Ordu honetan tren bat geltokira heldu zen. Ez zen jende asko atera: bi gizon, bere traje eta maletinengatik exekutiboak zirela ematen zutenak, eta arlote bat. Arlotea ez zen gaztea, berrogeiren bat urte izango zituen baina bere bizarrak aurpegia zahartzen zion. Trenean zegoela, Xalemeko hiriaz istorio bat kontatu zioten. Oso interesgarria iruditu zitzaion, eta horregatik gelditu zen Xalemen (ez zekien honek bizitza aldaturko ziola). Hamabiak aldera iritsi zen hilerrira. Hango bidetatik zihoala, otso

baten ulua entzun zuen. Une hartan, gauza arraro bat nabaritu zuen, baina urduri egoteagatik izango zela pentsatu zuen. Gainera bero gehiago nabaritzen hasia zen. Ezer ikusi ez zuenez, treneko istorioa gezurra izango zela pentsatu eta etxe lagaturantz jo zuen, han lo egiteko asmoz. Gizon batekin topo egin zuen, eta gizonak ikustean, oihuka, handik alde egin zuen azkar asko. Arloteak, harririk, denda baten kristalean ikustatu zuen, eta bere aurpegia ikusi behar, hara non otso baten irudia ikusi zuen. Arlotea

beldurturik zegoen. Korrika abiatu zen etxeetara izkutatzeko asmoz eta han biharmunera arte egoteko, baina bere senak zerbait txarra egitera behartzen zion. Bere barnetik otsoaren senak deitzen zuela sentitu zuen. Eta konturatu zenerako, lau hanketan eta ilargiari begira uluka zegoen.

Hurrengo goizean, esnatzean, hiriko plazan aurkitu zen, bere inguruan ilotz mordoia zegoelarik. Pertsona hauek otso batek eraso izan balie bezala zeuden. Hau ikusi orduko, hilketa hauek guztiekin harremanen bat zuela konturatu zen. Bere barnetik zetorren ahots batek, handik

lehenbait lehen aldegitoko aholkatuzion. Zerura begiratu zuen eta ilargia ikustean, dena ulertu zuen. Eta korrika, tren geltokirako bidean zihoala, erruduntasun sentimendua berataz jabetzen zihoala konturatu zen.



Trena hartu zuen, Xalemetik lehen baino lehen eta urrutien ihes egin nahi zuen. Tren barruan zegoela, bere parekoak zuen egunkaria irakurtzen hasi zen. Lehen orriko berria irakurtzean aho zabalik geratu zen. «Hilketa izugarria Xalemeko hirian. Bizirik geratzen direnek otso beldurgarri batek eraso egin ziotela diote...». Ezin izan zuen gehiago jasan ilbete guztietan jende piloa hilko zuenaren ideia. Orduan, trenaren atzekaldea joanez eta guztiontzat hobe izango zela pentsatzean, trenetik salto egin zuen.

Altabizkarko kantua (eta II)

Eta orain! Euzkaldunak!/ Utzi ditzagun arroka oriek,/ Bota ditzagun gure dardak/ Itzuli nai dutenari./ Baduazte, Baduazte/ ¿Nun dira oyen erdian agertzen ziran margozko inkurrin ayek?/ Ez da orain tximistari ateraten/ Oyen odol ez betetako armetatik./

¿Zemba dira? ¿Artzain, kontaitzak ongi!/ Ogei, emeretz, emezortzi, emezazpi, amasei, amabost, amalau, amairu, amabi, amaika, amar bederatz, zortzi, zazpi, sei, bost, lau, iru, bi bat. ¡Bat! Ez da bat ere agiri geyago/ Bukatu da. Etxeko jauna: Zuaz etxera zure txakurrarekin,/ Zuaz emazte/ Eta

zure aurrak bezarkatzera,/ Zuaz dardak garbitzera/ Eta altxatzera/ Zure tutuakin, eta gero/ Auen gañian etzan zaitez eta lo egin zazu. Gabaz arrauak emen dira/ Aragi puxka lertu oriek jatera./ Eta ezur oriek/ Oso zurituko dira betiko.

Nire ustez, badira zenbait lerro guztiz okagarriak direnak. Hala ere, hori ez da Garay de Monglaverri bakarrik aurpegira dakioken akatsa, baizik eta generoari. Munduan diren herri orok bere epika eduki behar du. Nahitanahiez. Azken labekadan sorturiko herrialdeek ere beste horren-

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Garay de Monglavek XIX. mendean Altabizkarko Kantua idatzi zuen, eta herriaren ahotik hartua zela koan plazaratu.

beste egin dute. Ikus bedi, esate baterako, Estatu Batuetako epika. Gezi Aroan bizi ziren indioekin topo egin, eta esku batez eskobatu zituzten gizarajoak. Gero, mila pelikulan, indio erdi-gizajale horiek neskatzak bortxatzen, umeak txikitzen, eta diligentziak ehitzen pantailaritzen dizkigute. Bigarren Gerrate Mundialean, sekula sekulorum egin den sarraskirik handiena egin zuten iparramerikarrek, biztanlego zibila atomikoki garbituz, eta beti pantailaritzen zaizkigun pelikuletan, bospasei gerlari amerikarrek, oholezko txalupa batean, aurre egin behar diete mila japoniarrei. Generoren ezaugarria da.

Heldu zaizkigun zinezko euskal epikaren poemak XV. eta XVI. mendetakoak dira, eta gudako gertakari horietan ez dira euskaldunak kanpotarren aurka aritzen, baizik eta euskaldunak euskaldunen kontra. Banderizoen gerrateak, edota giputzi eta naparren artekoak. Hona hemen Beotibarko guda, giputzi eta naparren artekoa: Mila urte igarota/ ura bere bidean/ gipuzkoarrak sartu dira/ Gazteluko etxean,/ nafarrrakin batu dira/ Beotibarren pelean.

Hitz bakarrak. Zinezko epikak, ez Garay de Monglaverena alegia, anaien arteko gudak ditu mintzagai.

Xalbador Eguna, 1977az geroztik, urtero ospatzen den Xalbador zenaren omenezko eguna da, bertso saio baten inguruan eratua. Urepeleko ezker pareta jendez bete zen berriro, Egaña eta bere lagunak entzuteko. Saio atsegina gertatu zen Laka bertsolari gai emailearen eskutik. Iguzki Lore taldeak hasieran bere bigarren konpaktuko kantak eman zituen.

Urepele Xalbadorren itzalpean

L. ETXEZAHARRETA / UREPELE

Urtero, udazkeneko kolore miragarriek eskaini ingurugiro amesgarrien erditik doa Urepele rainoko bidea, Baigorriko ibarra zeiharkatuz. Urtero Fernando Aire, Xalbador zenaren aipamen hunkigarria dator, gogoetaraziz, hilen oroitzeko egun hauetan, lurtar batzuen lekukotasunak mendeak gaintutuko dituela, beti, bere edertasunaren gatik.

Xalbador Elkartek, Bertsolarien Lagunak, Euskal Herriko bertsolarien Elkartek eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin antolatu eguna iragan zen haize hegoak argitu egunean, joan zen igandean. Hasieran, 'Iguzki Lore', 40 hurrek osatu abesbatzak bere bigarren konpaktuko kantak aurkeztu zituen lehendabiziko aldiz. Jo Maris garaztarrak zuzendu taldeak kanta alai eta erritmodunak eman zituen, bukatuz Xalbadoren bertsoekin, hauek ziotelarik «gazte suharrak baditugu eta altxa ditzagun bihotzak».

Andoni Egaña txapeldun zauratza, Mikel Mendizabal Itsasondoko bertso irakaslea, Bittor Elizagoien arraiotza —aurtengo Nafarroako txapelduna— Hegoaldetik etorri ziren. Txomin Ezponda garaztara, Nafarroako txapeldun gertatu zena 83an eta Mixel Xalbador, 80 eta 85eko txapelduna elkartu ziren bertso saiorako, arratsaldeko bostetan.

Agurrak egitean, bere kalitate eta presentziaz arratsaldea gaintu zuen Egaña Xalbador aipatu zuen erranez «zu zein larretan zabilzan badakigu, gu non gauden ez dakigu». Ezponda eta Mixel Xalbadorek lehendabiziko gaia eraman zuten Urepeleko



Egaña Ezponda eta besteen ondok abestu zuen Urepelen.

LUZIEN ETXEZAHARRETA

uren inguruan. Ondoren, Mendizabal eta Egaña beren familietako hilen oroitzapena eman zuten, santutasunaren gaiarekin.

Lakak gai polita eman zion Egañari, Xalbadoren hitzen inguruan, «nortan goxatzen ote dituzue, bere amarik ez duen dohakabeak?» gaiarekin. Elizagoienek Iruñeko mediku bertsozale Pedro Diez de Ultzurrin artoski omendu zuten.

Egaña: «Lortu behar dugu jendeak hizkuntzarekin gozatzeko ikastea»

L. E. / UREPELE

EGUNKARIA.— Txapelarekin etortzea Urepelera gertakari zen zuretzat?

ANDONI EGAÑA.— Txapelarekin etortzea ez, etortzea bai! Guretzat pozgarri da Iparraldera etortzea. Bertso saio guti dira hemen baina badakigu Iparraldea garrantzitsua dela eta bertsozaleen aldean bultzada bat behar duela.

EGUNKARIA.— Xalbadorren bertsoez beste asko bezala maitemindua zaudeke...

EGAÑA.— Bai, noski. Orain gutxiago, denbora gutxiago dudalako, baina hogeitun nituelarik, 1982ko urte horietan, gogoz ikasi nituen asko eta asko eta bai orduan, eta bai orain, Xalbador eredu bat da.

EGUNKARIA.— Bere ekarpena zein da, zure senditzeko araberan?

EGAÑA.— Bertsoen teknikan gauzen oso txukun egitea, gauzen oso sakon esatea eta sentimentua kanporatzen jakitea. Ideologiaren aldetik ere, lehen kantatu du zerbait! Muga pasatzen ari ziren beltzei kantatu izana edo umezurtzei, sentsibilitate berezi bat zeukan ahulenganako, tikienganako, hori gauza handia da. Gaur egun arrazismoaren

aurka egotea oso modan dago eta denok gaude, baina duela 30 urte hori berrikuntza handia zen.

EGUNKARIA.— Iparraldean kantatzean zure bertsoak egokitu al dituzu?

EGAÑA.— Ez, tamalez ez gara moldatzen bertsoan euskalki guzietan; gainera, bat-batekoa izatean lan handiegia da, esanahia topatu, hizkera egokitu... Baina ez dago arazorik, beti elkar ulertu ahal izan dugu ondo.

EGUNKARIA.— Iparraldeko gauzen nolako erabilera duzu?

EGAÑA.— Tamalez bertsolari-tza ikuskizun bihurtu da eta ikuskizunaren da zerbait intentsio eta funtzionatzen duena. Hor fintasuna, sentsibilitatea, hizkuntzaren zehaztasuna jende gehienak ez ditu estimatzen eta hori da pena gaur. Mixel beraren hainbat hitz joko eta hainbat sintaxi lokera eta abar niri zoragarriak iruditzen zaizkit. Baina entzuleetan hainbat ez da konturatu ere seguru asko. Lortu behar dugu jendeak hizkuntzarekin gozatzeko ikastea berri ere.



Ezker pareta jendez mukuru.

LUZIEN ETXEZAHARRETA

«Hizkuntzak lurra behar du»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

'Ur uherrak' Aingeru Epaltzaren liburuaren bigarren argitalpena kaleratuko du hil honetan Pamiela argitale-
txeak. Idazle nafarraren eleberri honek oihartzun zabala izan du euskal literaturan, baina ez hainbeste mami eta egitura-
rengatik nola bertan erabiltzen den euskararengatik. Horrek ustekabeen harrapatu duela dio Epaltzak.

tasunaren mesederako. Horiek kontuan hartuta, harritu nintzen zenbait kritikarekin, kokolan jartzen zutelako nere idazmoldea. Horrek ekarri du eleberriaren inguruan egin diren komentarioak ildo horretatik joan direla, batzuk alde eta besteak kontra. Baina liburu hori baino gehiago ere bada. Hor bada narrazioa, garpen bat, pertsonaia batzuk, egoerak... eta liburu horrek izan ditzakeen balioak ez dakit

uste duzu?

EPALTZA.— Bai, bertzelako balioa duen lana dela uste dut, aitzinago idatzi ditudan aldean, mami eta azalez. Nik uste dut oraindik ez duela bere bide osoa egin.

EGUNKARIA.— Zein da bide hori?

EPALTZA.— Beharbada harrokeria da, baina uste handia dut nobelan horretan. Zerbait ekarri dio euskal literaturari, azken urteotan erabili duen hain-

karen erabilpena. Problematika bat hor dago, eta uztartze hori hor dago.

EGUNKARIA.— Liburuan jorratzen duzun oreka-desoreka hori nola ikusten duzu gizar-tean?

EPALTZA.— Desoreka bada, eta bi mundu dira elkarren artean mintzatzen ez direnak, orain arte behintzat. Iruñean sortzen ziren gauzak Iruñerako ziren, eta mendiak beste mundu bat zuen. Baina hiriko euskaldunak gero eta kontzientekoak dira —irakaskuntza mundutik aparte daudenak, irakaskuntza mundu itxia delako— zubiak-eta eraiki beharraz, inkomunikazio horrek ez baikaramatza errekara baizik. Guttika-guttika mendialdean ere halako kezka badago, eta zubi horiek eraiki beharko ditugu, bertzenaz gureak egin du. Gu tradizioz gabe ez gara deus, baina aitzinera begiratu gabe ere ez gara deus. Orduan tradizio eta modernitatearen arteko lotura hori eraikitzen ez dugun bizkitartean ez dugu deus ere eginen, ezin izanen baitugu aitzina egin. Oraindik ere oreka hori lortu ezinean ari gara, baina premiazkoa da, eta Nafarroan are premiazkoagoa, gelditu baikara isolatuak. Irakaskuntza munduan oso garbi gertatu da: ez da bere inguruari begira bizi, eta urrutiko ereduak hartzen ditu. Horrek sorrarazten du haur pila ateratzen direla euskaraz erdipurdika mintzatzen direnak, baina hemendik hoge kilometrorra dagoen herri batera joan ezin daitezkeenak. Bakarrak Iruñeko edo Donostiakoekin mintzatzeko balio die euskarā horrek...

EGUNKARIA.— Hala ere, mendialdean gero eta jende gutxiago, Iruñean gero eta gehiago...

EPALTZA.— Bai, badakigu, baina hizkuntzak lurra behar du, eta ez bakarrik porlana. Eta lurra behar du arnasa hartzeko, horretarako baizik ez bada ere. Eta hemen ez dago lurrik. Lurra bilatzeko kanpora atera behar da, Belate edo Irurtzun zeharkatu behar da.

Aingeru Epaltza

IDAZLEA



SOSLAIA

Haurrendako beste nobela bat laster

Bere azken eleberriaren berrargitalpenaz gain, haurrendako liburuxka berria —'Lur zabaletan' izenekoa— kaleratuko du laster Aingeru Epaltzak. Horretaz gain, beste nobela luze bat ari da prestatzen, lanean etengabe. Literaturak euskal munduan duen oihartzunaz galdetzen zaionean, «miresmen bitxia» dela aipatzen du, hori delako, bere ustetan, euskalgintzan gehien garatu dena. «Zinemagintza ez dugu garatu, eta artegintza ere gutti. Modernitatearekin konektatzeko literatura, eta, orain, komunikabideak ditugu, baina, hala ere, gero eta guttiago irakurtzen da, eta hori ere kezkatzekoa da».



Aingeru Epaltza.

OSKAR MONTERO

EGUNKARIA.— Eleberri honen ezaugarri bat izan baldin badu euskararen erabilpenaren inguruan eginiko kritikak izan dira. Harritu egin zaitu horrek?

AINGERU EPALTZA.— Ustekabeen harrapatu nau, egin erran, sortu den polemika horrek. Ni ez naiz orain idazten hasia, banituen-eta bi liburu argitaratuta, eta EGUNKARIAN, eta 'Nafarroa Gaur-en' egin nituen lanengatik nere idazmoldea jakintzat jotzen nuen. Nik ahalegin berezia egin nuen azken lan honetan euskara estandaragoa erabiltzeko, zentratzeko, eta bazter utzi nituen lehenago sartzen nituen hainbat hitz. Beraz, gaur egun Nafarroan bizien dauden euskalkietan oinarritu nintzen, argi-

«Uste dut 'Ur uherrak' liburuak zerbait ekarri diola euskal literaturari, azken urteotan erabili diren hainbat arazori aterabidea ematen diolako».

itzalpean gelditu, baina ia-ia ez dira agertu. Gaizki pentsatzen, ematen du, alde hori ari direla jorratzen bestea ez aipatzeko.

EGUNKARIA.— Zure lanetan nobela hau jauzi bat izan dela

bat arazori aterabide bat ematen dielako, edo behintzat nere soluzioa ematen diet. Bai gai batzuen tratamenduari dagokionez, bai euskararen beraren erabilpenari dagokionez, bai euskararen inguruan dabilzan tradizioaren eta modernitatearen arteko uztartze korapilatsu eta problematiko horren inguruan hausnarketa badago, bai mamian eta baita liburuaren egiturari dagokionez ere. Ez dakit horrek zer oihartzuna izango duen, baina hor dago.

EGUNKARIA.— Modernitatea eta tradizioa, hiria eta herria da azken finean gai nagusia?

EPALTZA.— Hori alde batetik, baina hizkeraren arteko dialektika hori ere hor dago, bertsolaritzaren erabilpena, musi-

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

